

2005-2007rako AKORDIO PROPOSAMENA

1. EZARPEN EREMUA

Artikulu jakin batzuetan ezarpen esparruari buruz berariaz adieraziko diren xehetasunak albo batera utzirik, Akordio hau Gipuzkoako Foru Aldundiaren zerbitzura lanean ari den pertsonalari aplikatuko zaio, baldintza hauen arabera:

- a) Zerbitzu aktiboan dauden karrerako funtzionarioei.
- b) Lan kontratudun finkoei.
- c) Aldi baterako pertsonalari, hau da, bitarteko funtzionarioei, praktikaldiko funtzionarioei eta aldi baterako lan kontratudunei, enplegu harremanaren izaerarekin bateragarria den guztietan.

2. INDARRALDIA ETA IRAUPENA

Akordio honen indarraldia hasiko da Diputatuen Kontseiluak onartzen duenean, lansarien eguneratzeari dagokiona salbuetsiz, eragina izango baitu 2005eko urtarrilaren 1etik aurrera, eta antzintasunagatiko jai egunei dagokiena salbuetsiz, indarrean jarriko baita 2006ko urtarrilaren 1ean.

Indarraldia 2007ko abenduaren 31n amaituko da. Nolanahi den ere, luzatutzat joko da bere ordez datorren beste akordioa indarrean jarri bitartean.

3. BALDINTZA ONURAGARRIAGOAK

1. Akordio honen xedea da orain arte indarrean izan diren Gipuzkoako Foru Aldundiaren Langileen Araudian eta Barne Arauetan ezarritako baldintzak hobetu eta osatzea.

2. Aipatutako bi dokumentu horietan edo langileei buruz Gipuzkoako Foru Aldundiak emanak dituen gainerako araudietan aurreikusten ez diren alderdi guztietan, funtzionarioen nahiz langileen esparruan dauden legeak aplikatuko dira era osagarrian.

4. ORDAINSARIEN IGOERA

2005. urtea:

Hitzartzen da 2005ean lansariak handituko direla, 2004koen aldean, % 2, bai oinarrizko ordainsarrietan, bai osagarrietan: horrez gain, 2005eko urteko lansariak handituko dira herri langile bakoitzaren Destino Osagarriaren % 20 bi aparteko ordainketatan: gainera, Erakundearen zerbitzu publikoak modernizatu eta arrazoibidetzeko nahiz administrazioaren produktibitatea hobetzeko funtsa era osagarrian handituko da zenbateko batez, non, aipatutako hiru ordainsarien handitzeak sortzen duen masari erantsita, 2004ko ordainsari oinarrizko nahiz osagarrien lansarien % 4,1en parekoa izango baita: hori guztia 2005eko urtarrilaren 1eko atzera-eraginez eta kontura egindako lansari handitzeak kenduta, halakorik egin baldin bada.

2006. eta 2007. urteak.

2006an, lansarien handitzea kontzeptu guztiak batera hartuta, zerbitzu publikoak modernizatu eta arrazoibidetzeko nahiz administrazioaren produktibitatea hobetzeko funtsa barne delarik, 2005eko lansari guztien % 4,1 izango da. 2007an, lansarien handitzea kontzeptu guztiak batera hartuta, zerbitzu publikoak modernizatu eta arrazoibidetzeko nahiz administrazioaren produktibitatea hobetzeko funtsa barne delarik, 2006ko lansari guztien % 4,0 izango da.

EROS AHALMENARI EUSTEA

Gipuzkoako Foru Aldundiak eros ahalmenari eustea ziurtatuko du 2006an eta 2007an. Horrela, 2005ari dagokion Estatuko kontsumoaren prezioen indizeak (KPI) gainditzen badu 2004ko KPI, 2006an portzentaje horretatik gorako zenbatekoa produktibitate kontzeptua ordaintzeko funtsa osatzera joango da. Akordio honen indarraldia kontuan izanda, formula berbera aplikatuko litzateke 200ko ekitaldian, 2006ari dagokion KPIk 2005ekoa gaindituko balu.

4.1. IZAERA OROKORRA EZ DUTEN ORDAISARI JARDUERAK

Ordainsari egoera jakin batzuk egokitzeko xedez, 10. destino osagarria duen langile multzoarentzat ordainsari erabaki batzuk emango dira, osagarri maila hori deuseztatu eta 11.enera igoaz.

5. GIZA BALIABIDEAK HOBETU ETA EGUNERATZEA

Gipuzkoako Foru Aldundiak bere giza baliabideak etengabe hobetzeko behar diren jarduera guztiak antolatzeko hitza ematen du, horretarako erabiliaz prestakuntza, karrera administratiboa eta sustapena, hautapen prozesuak eta euskalduntze prozesua, betiere zerbitzu publikoen eraginkortasunaren eta eragimenaren irizpideen arabera.

Xede horiek azkartzeko bidean, Gipuzkoako Foru Aldundiak langileen ordezkarien partaidetza sustatuko du, gaur egun indarrean diren negoziaketa bideen bitartez.

6. OHIKO LANSAIOA ETA ORDUTEGIA.

ORDUTEGI MALGUTASUNA FAMILI BIZITZA ETA LAN BIZITZA BATERAGARRI EGITEKO

1. 1 zk. egutegia duten langileentzako ordutegi malgutasuna.

Gaur egun Gipuzkoako Foru Aldundian 30 minutuko ordutegi malgutasuna duten langileek Akordio hau indarrean jartzen denetik aurrera 45 minutuko malgutasuna izango dute eguneroko lantsaioan sarreran eta irteeran. Sartzeko ordua izango da 07:45 - 08:30 bitarte, eta irteteko 14:55 - 15:40 bitarte.

Bestalde, langileak 12 urtetik beherako seme-alabarik baldin badauka, horrez gain 30 minutuko malgutasuna izango du sarreran, hori da, 09:00ak bitarte, betiere interes publikoa kaltetzen ez bada, eta irteera ordua behar hainbatean atzeratu beharko du eguneroko lantsaioa osatu arte.

Era berean, mugitzeko arazoak dituztelako edota gaixotasun larria dutelako odoleko nahiz ezkontzako 2. mailarainoko ahaideak edota etxean bizi den beste norbait (errolda agiriaren bitartez egiaztatu egin beharko da) zaintzen dituzten langileek horrez gain 30 minutuko malgutasuna izango dute sarreran, hori da, 09:00ak bitarte, eta irteera ordua behar hainbatean atzeratu beharko dute eguneroko lantsaioa osatu arte.

Bi malgutasun handitze horiek (seme-alaba txikiak eta ahaideen zaintza) ez dira metagarriak izango.

Gipuzkoako Foru Aldundiak hitz ematen du aztertuko duela gaur egun ordutegi malgutasunik ez duten beste lan talde batzuen egoera, eta 1. zk. lan egutegian malgutasuna aplikatzen ez den beste egoera batzuetara aplikatzeko aukera.

2. Lantsaioaren murrizpena seme-alabak edo senitartekoak zaintzeko.

12 urtetik beherako seme-alabak dituzten edo mugitzeko arazoak dituztelako edota gaixotasun larria dutelako odoleko nahiz ezkontzako 2. mailarainoko ahaideak edota etxean bizi den beste norbait (errolda agiri bidez egiaztaturik) zaintzen dituzten langileek lantsaio arrunta 1/2, 1/3 edo 1/5 murriztea eskatu ahal izango dute.

Lantsaioaren murrizpenak ordainsarien murrizpen proportzionala ekarriko du.

Lantsaioaren murrizpena erabakiko da Funtzio Publikoko eta Zerbitzuetako zuzendari nagusiak emandako Ebazpen bidez, langile interesatuak aurrez eskaera eginda eta murrizpena emateko baldintzak betetzen direla egiaztatuta. Gainera, eskatzaileak

adierazi beharko dio Funtzio Publikoko Zerbitzuari zein lan ordutegi egingo duen, bere zerbitzuko buruari aurrez adierazita.

7. ERRETIORAKO NEURRIAK

Borondatezko erretiroaren sarien zenbatekoa eskala honen arabera kalkulatu da, urteko ordainsari gordinak kontuan izanda:

Adina	Hileko kopurua
60	21
61	17
62	12
63	9
64	6

Gipuzkoako Foru Aldundiak eta langileen ordezkariak hitz ematen dute 60 urte edo gehiago dituzten langileen erretiro aurreratua aplikatzeko neurrian aztertu eta negoziatuko dituztela, Akordio honen indarraldia amaitu aurretik, langile sartu berriez ordezkatzeko.

8. JAI EGUNAK

Zerbitzu aktiboan dauden karrerako funtzionarioek eta lan kontratudun finkoek, legez aitortua duten antzinasunaren arabera, urteko oporraldiaz gain, jai egun kopuru jakin bat izango dute, taula honetan adierazitakoaren arabera:

- 15 urteko zerbitzualdia dutenek, jai egun 1.
- 20 urteko zerbitzualdia dutenek, 2 jai egun.
- 25 urteko edo gehiagoko zerbitzualdia dutenek, 3 jai egun.

Xedapen hori aplikatuko da 2006ko urtarrilaren 1etik aurrera.

Jai egun horiek erabiltzeko eskubidea gauzatuko da aipatutako antzinasuna betetzen den urtearen hurrengotik hasita.

Jai egun horiek hartu beharko dira nahitaez dagokien urte naturalaren barruan. Edozein arrazoirengatik ezin badira urte naturalaren barruan erabili, jai egunak hartzeko eskubidea galdu egingo da.

9. FUNTZIONARIO BIHURTZEA

Gipuzkoako Foru Aldundiak hitz ematen du lanpostuen zerrendan funtzionarioentzat gorderik diren lanpostuetan ari diren lan kontratudun langile finkoak funtzionario

bihurtzeko deialdia egingo duela, langileen ordezkariekin aurrez negoziatuta, 1989ko uztailaren 6ko 6/1989 Funtzio Publikoaren Legeak xedatutako aurreikuspenen arabera, Akordio honen indarraldia amaitu aurretik.

10. LANPOSTUEN BALORAZIOA

Gipuzkoako Foru Aldundiko lanpostuen balorazio prozesuak etengabe eguneratzea sustatuko da, lanpostuen baloraziorako batzorde teknikoaren lanen jarraitasuna eta aldizkatasuna ziurtaturik.

11. LANPOSTUAK BETETZEA, ENPLEGU ESKAINTZA ETA LANBIDE SUSTAPENA.

Lanpostuak betetzeko aldizkako deialdiak egingo direla ziurtatzen da, baita barne sustapena eta enplegu eskaintzak ere, prozesu jarraitu eta etenik gabeko baten bitartez, eta konpromisoa hartzen da ez dela bitarteko funtzionarioekin edo aldi baterako kontratudunekin egiturazko lanpostuen % 6 gaindituko.

Ziurtatuko da, era berean, enplegu publikoaren eskaintzak barne hartuko duela ezgaitasuna duten pertsonentzat erreserbatutako lanpostuen deialdia, legez ezarritako dauden portzentajeetan, baita lan poltsetan ere.

Gipuzkoako Foru Aldundiak hitz ematen du egiturazkoak izan daitezkeen aldi baterako lanpostuak aztertuko dituela 2006an.

12. LIZENTZIAK ETA BAIMENAK

Lizentzia eta baimenen gai diren lan egunak hartu beharko dira nahitaez haien arrazoi diren egintzak gertatzen diren egunetan, berariaz beste aukerarik ezartzen ez den bitartean.

1. Lizentzia haurdun egoteagatik, erditzeagatik eta bularra emateagatik: 126 egun naturaleko iraupena izango du. Erditze anitza baldin bada, lizentziak 146 egun naturaleko iraupena izango du.

2. Aitatasun lizentzia: haur jaio berri baten aita izateagatik, edota adopzioagatik, aitak 5 lan eguneko lizentzia izango du, jarraituak izan ala ez, baina hamabost eguneko epean haurra jaiotzen denetik edota adoptatutako umea etxera iristen denetik.

3. Senideen gaixotasun larri, ospitaleratze edo heriotzako lizentzia.

3.1. Senideen heriotzagatik:

Lizentzia 5 lan egun jarraitukoa izango da aita, ama, ezkontide eta seme-alaben heriotzagatik.

Lizentzia hasi beharko da heriotzaren egun berean edo hurrengoan.

Aita, ama, ezkontide eta seme-alaben heriotza kasuetan soil-soilik, suhiltzaileek ere 5 lan egun jarraituko lizentzia izango dute, egun horietan zenbat lanordu egin behar lituzketen kontuan hartu gabe.

3.2. Senideen gaixotasun larriagatik (ospitaleratuta).

Lizentzia 5 egunekoa izango da, jarraian edo txandaka, aita, ama, ezkontide eta seme-alaben gaixotasun larriagatik (frogatuta).

Senideen gaixotasun larriagatik (ospitaleratuta) ematen den lizentzia honi xehetasun hauek egin behar zaizkio:

Aita, ama, ezkontide eta seme-alaben ebakuntzak ospitaleratzerik ez dakarrenean, baina ebakuntzaren izaeragatik etxean mendekotasun egoeran gelditu beharra dagoenean, lizentzia izango da ebakuntza egunerako eta hurrengo egun naturalerako. Mendekotasun egoera ebakuntza egindako sendagileak ziurtatu beharko du.

4. Sendagilearengana joateko lizentzia. Sendagilearengana joateko lizentzia, eta adineko pertsoneri edo seme-alaba adingabeei laguntzekoa, hilean 6 orduko mugaz izango dute Gipuzkoako Foru Aldundiko langileek.

5. Lizentzia norberaren gauzengatik. Lizentzia bat ezartzen da norberaren gauzengatik, urteko lanordu kopurutik kentzeko bi eguneko iraupenaz, gehi beste bi egun errekueratu beharrekoak.

13. IZATEZKO BIKOTEAK, SEME-ALABAK ETA FAMILIA HARRERA.

Izatezko bikoteen kideek ezkontideen maila bereko izaera izango dute Funtzio Publikoaren Legean eta Euskadiko funtzionarioen estatutua erregulatzen duten gainerako arauetan xedatutako gaietarako, lizentzia, baimen, administrazio egoera eta lanpostuak betetzeko prozesuei gagozkiela, betiere bikote izaera hori Izatezko Bikoteen Legeak xedatutakoaren arabera egiaztatzen baldin bada.

Gisa horretan, ezkontza bidezko ahaidetasuna aipatzen den guztietan, ezkonduetako pertsonen kasuan bezalaxe ulertu beharko dira haientzat ere. Halaber, seme-alaben

aipamenak adopzioz hartutako edota famili harrera egoerako seme-alabetara hedatuko dira.

14. LANEKO ARRISKU PSIKOLOGIKOEN ETA SOZIALEN PREBENTZIOA: ERASO MORALA ETA SEXUALA LANEAN

Gipuzkoako Foru Aldundiak hitz ematen du lanean giro egokia sustatzen jarraituko duela, arrisku psiko-sozialei aurre hartzeko sentiberatze lana eginez, bai eraso moralaren bai eraso sexualaren esparruan, arrisku horiek ebaluatzen diren heinean.

Halaber, jardunbide horretan lanaren antolakuntza ere aztertuko da, langileen osasun fisikoa nahiz mentala kaltetzen duten faktoreak deuseztatzeko. Antolakuntzaren esparru horrek egitura osoa hartuko du, goitik behera, kide bakoitza garrantzizkoa baita.

Laneko Arriskuen Prebentzio Zerbitzuak protokolo bat egingo du eraso ezaz, eta Laneko Segurtasun eta Osasuneko Batzordean aurkeztuko du, Gipuzkoako Foru Aldundiak onartu eta bete dezan.

15. BIZITZA ETA BALIAEZINTASUN ASEGURUA.

Gipuzkoako Foru Aldundiak bizitza, baliaezintasun eta erantzukizun zibileko aseguru bat edukiko du bere kontura, ezintasun iraunkor osoko eta erabateko ezintasun iraunkorreko kasuetara ere zabalduko dena, 42.000 euroko gutxieneko estalduraz 2006ko urtarrilaren 1etik aurrera, eta 47.000 eurokoa 2007ko urtarrilaren 1etik aurrera.

16. PRESTAKUNTZA

Akordio hau indarrean jartzen denetik aurrera, langileek prestakuntza ikastaroetarako egiten dituzten eskaera guztiak Zerbitzu Publikoen Kalitate Zuzendaritza Nagusian aurkeztu beharko dira. Gipuzkoako Foru Aldundiak berak sustatutako ikastaro batera joateko baimena ukatu den kasuetan, ukatze horren arrazoiak azaldu beharko dira.

17. ALDI BATERAKO EZINTASUN ARRUNTAREN KUDEAKETA.

Gipuzkoako Foru Aldundiak adierazten du orain arte aldi baterako ezintasun arrunta kudeatzeko INSSk eta OLAZek emandako zerbitzu sistemari eusteko asmoa duela.

18. OBRAK ETA ZERBITZUAK AZPIKONTRATATZEA

Gipuzkoako Foru Aldundiak hitza ematen du zerbitzu publikoak hobetzeko borondatea eta konpromisoaren alde, eta zerbitzu horiek emateko eran, beti hobetsiko du esku artean dituen baliabideei etekinik onena ateratzeko eraginkortasuna eta eragimena.

Bide horretan, konpromiso hauek hartzen ditu:

- Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta langileen ordezkarien artean batzorde bat eratzea 2006an azterlan bat egin dezan departamentuka kontratatuak eta azpikontratatuak diren zerbitzuen gainean, langile kopuruak eta kontratazio moduak zehazturik, 2007an behar diren erabakiak hartuak izan daitezzen.
- Zerbitzu publikoak kudeatzeko kontratazioa eta zerbitzu kontratazioa mugatzea, eta konpromisoa hartzea kontratatutako nahiz azpikontratutako enpresetan lana baldintza duinetan egingo dela, dagokien lan hitzarmenaren arabera jokatuz, batik bat langileen subrogazio gaietan.
- Enpresa kontratatzaileekin egin beharreko kontratu publikoetako Baldintza Administratiboen Agirian alderdi hauek jasoko dira:

-Enpresa horietako langileen lan baldintzak, eta kontratuak esleituta dituzten enpresek azpikontratitzen dituzten enpresek nahitaez bete behar dituztela esparru laboralean indarrean diren legeak.

-Esleipen irizpide osagarri eta ez erabakigarriak, lehenetsuen bat emateko enplegu finkoari, lan arriskuen prebentzio alorreko legeria betetzeari eta ezbehar indize txikiagoa duten enpresei.

-Esleipenaren baldintza ekonomikoak ez dira sektore horretako lan hitzarmenaren aplikazioak sortarazten dituenak baino txikiago izango, batik bat lansarien eta langileriaren alderdian, era horretan hitzarmena betearaziko dela ziurtatzeko.

Gipuzkoako Foru Aldundiak hitz ematen du kontratuak esleitzeko klausula berri horien egiaztatpena, kontrola eta jarraipena egiteko bitartekoak ezarriko dituela, langileen ordezkariekin batera.

19. AUKERA BERDINTASUNEN PLAN HORIZONTALAREN DEPARTAMENTU ARTEKO BATZORDEA

Gipuzkoako Foru Aldundiak hitz ematen du aldian behin informazio zehatza emango diela langileen ordezkariari berdintasun politikak sustatzeko Aukera Berdintasuneko Plan Horizontalaren Departamentu arteko Batzordeak egindako lanaz.

20. LANGILEEN ARAUDIA ETA BARNE ARAUAK

Akordio honetan jaso gabeko gai guztietan Langileen Arauditza geldituko dira 1993ko uztailaren 20an Diputatuen Kontseiluaren Erabakiz onartutakoa eta haren aldaketak, baita Gipuzkoako Foru Aldundiaren Barne Arauak ere, 1991ko maiatzaren 28ko Diputatuen Kontseiluaren Erabakiz onartutakoak eta haien aldaketak.

Langileen Araudiaren testu bateratu bat egingo du Funtzio Publikoaren Zuzendaritzak, gertatu diren aldaketa guztiak testu bakarrean jasotzeko. Testu hori Intraneten jasoko da.

Donostian, 2005eko abenduaren 26an

Funtzio Publikoko eta Zerbitzuetako zuzendaria

LAB

CCOO

BAZKUNA

ESK